

Jakingarriak

Haur Eskola 0-3



Argitaratzailea:	Mondragon Unibertsitatea. Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.
Laguntzailea:	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
Erredakzioa:	Mondragon Unibertsitatea. Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Dorleta auzoa z/g 20540 Eskoriatza Tfnoa: 943-714157 Faxa: 943-714032 E-mail: liburutegia@huhezi.edu www.huhezi.edu
Zuzendaritza:	Nerea alzola.
Erredakzio Kontseilua:	Mariam Bilbatua, Pello Añorga, Xabier Arregi, Iñigo Ramirez de Okariz, Nekane Arratibel, Alexander Barandiaran.
Itzultzailea:	Iñaki Mendiguren.
Euskara zuzentzailea:	Karmele Pérez.
Idazkaria:	Mari Karmen Apraiz.
Diseinua:	Maddi Trutxuelo.
Inprimategia:	Antza inprimategia.
L.G.:	SS-981/92

	BERRI BIBLIOGRAFIKOAK
4	Liburu berrien albisteak
7	Artikulu aipagarriak
11	Esan dute

GAI MONOGRAFIKOA

HAUR ESKOLA 0-3

14	SARRERA Angel Bao Pérez Sarrera Haurrak izateko eskubidea
16	Alfredo Hoyuelos Planillo Zer da Haur Eskola
20	M^a Dolores Ruiz Doménech Granadako Haur Hezkuntzako Udal Patronatua: kalitatezko hezkuntza eredu bat
26	Irene Balaguer Europako kalitate parametroak lehen haurtzaroan
34	Marta Roman “Hirikume” baten ama izatea
38	BALIABIDEAK Hezkuntzari buruzko atariak

Liburu berrien albisteak



INTXAUSTI, Nahia, SARASUA, Jon, UNANUE, Amagoia, (2002): *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*. Lanki. Mondragon Unibertsitatea

Kooperatibak eta euskara liburuak argia egin nahi luke Arrasateko Kooperatiben Esperientzia deitutakoa osatzen duten enpresa eta erakundeek euskararekin izan duten eta duten harremanean.

Emun kooperatibak, ipar nagusitzat euskara garatzeko zerbitzuak eskaintzea izanik, eta Lanki iker-tegiak, kooperatibagintzaren dimentsio desberdinak ikertzea baitu helburu, bat egin dute lan honetan.

Amagoia Unanue eta Nahia Intxausti Humanitateak-Enpresako lizentziatu berriek egin dute ikerketa, Jon Sarasua eta Juan Luis Arexolaleibaren ardurapean.

Lau begiratu aurkituko ditu irakurleak kapitulu banatan. Lehen kapituluak, Jose Maria Arizmendi-rieta kooperatiba esperientziaren bultzatzailearen hizkuntza biografia laburtu dugu. Gizon honen hizkuntza ibilbide gorabeheratsuak polito adierazten du kooperatiben sorreran eta abiatzean belaunaldi batek izan zuen egoera eta jokaera. Bigarren kapituluak da mardulena, kooperatiben euskararekiko harremanaren azalpen historikoa egiten duena, lau gai-ataletan banaturik. Kapitulu honen ekarpen nagusietakoa zera izan da: inoiz batu gabeko datu barreiatuak gorputz batera ekartzen egindako ahalegina. Hirugarren kapituluak gaur egun enpresetan euskara garatzeko martxan dauden planen oinarriak eta bilakaera landu ditugu. Azkenik, laugarren begiratu etorkizunera begira egindakoa da: zer leku izan dezake euskara garatzeak kooperatiben jokabideetan, eta zer eragin izan dezake kooperatibetan euskara erabiltzeak euskararen garapen osoagorako?

Une honetan enpresa-jardueran euskara garatzeko planen aro berrian murgilduta daude kooperatiba garrantzitsuenak. Garrantzi handiko prozesua izan liteke berau, euskararen biziberritze orokorrari begira. Prozesu hori tinkotzeko, beharrezkoa da ahalegin hau historian kokatzea eta etorkizuneko oinarriak sendotzea. Horretarako tresna izan nahi luke azterlan honek.

Amagoia Unanue
Mondragon Unibertsitatea.
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



SAGASTA ERRASTI, M^a Pilar (2002). La producción escrita en euskara, castellano e inglés en el modelo D y en el modelo de inmersión. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpen zerbitzua

Ikerlan honetan D eta Murgiltze ereduak ikasleen produkzio idatzia aztertzen da hiru hizkuntzatan, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, eta baita hizkuntza horien arteko harremanak ere ikaste-irakaste prozesuan. Azterketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 155 ikaslerekin egin da. Ikasle erdian etxeko hizkuntza euskara da eta gainontzekoena gaztelania, baina guztiek euskaraz egin dute eskola-ibilbide osoa.

Emaitzak ikusterakoan, esan dezakegu D ereduak ikasleek euskaraz lortzen dutela hizkuntza gaitasun haundiagoa. Gaztelanian ez dago alderik eta ingelesean D ereduak ikasleen emaitzak hobekuntza dira. Bestalde, hiru hizkuntza horien arteko harremana oso estua da maila guztietan. Alegia, lexikoa aberatsa bada euskaraz, hala da gaztelaniaz eta ingelesez ere.

Azpimarragarria da elebitasun mailak duen eragina hirugarren hizkuntzaren jabeakentzan. Zenbat eta hizkuntza gaitasun hobea izan euskaraz zein gaztelaniaz, orduan eta lorpen hobekuntza ematen dira ingelesez. Euskararen erabilera ere harreman zuzena dauka ingelesez lortzen diren emaitzekin. Gizarte zein eskolan euskara gehien erabiltzen duten neska-mutilek lortu dute hizkuntza gaitasun hobea ingelesez.

Ikusitako emaitzen argitan, esan daiteke hizkuntzak ezin direla era isolatuan planifikatu. Hizkuntza batean egiten denak eragin zuzena du beste hizkuntza batengan. Beraz, koordinazio estua ezinbestekoa da hizkuntza plangintza koherentea izan dadin.

Beste ondorio bat da hizkuntza gutxituaren erabilera duen eragina eleaniztasunaren jabeakentza prozesuan. Ikerlan honetan agerian da euskaraz egitea mesede dela hirugarren hizkuntza ikasteko. Hizkuntza gutxituaren erabilera elebitasun maila sustertzen du eta horrek hirugarren hizkuntzaren jabeakentza errazten du.

Aurrera begira, bi erronka nagusi aurreikusten ditugu: bata, hizkuntza curriculumaren birmoldaketa eta bestea, hizkuntza gutxituaren erabilera eskolan zein gizartean.

M^a Pilar Sagasta Errasti
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Irakaslea.



RUE, Joan (2002). *Qué enseñar y por qué. Elaboración y desarrollo de proyectos de formación*. Paidós. Barcelona.

Gure gizartean gertatzen ari diren aldaketak eragiten ari dira hezkuntzaren funtzio eta antolaketan. Hori dela eta, autoreak beharrezkotzat jotzen du aldaketa horiei aurre egiteko bi alderditan sakontzea: irakaslearen hausnarketa bultzatzea eta praktikan oinarritutako proposamenak gauzatzea. Gaur egungo errealitateari erantzuteko, beharrezkotzat jotzen du autoreak praktikan oinarritutako errealitate konplexuaren azterketa bultzatzea, eta, horregatik, zailtasun jartzen du ikuspegi teknologikoak garatzen dituen proposamen orokorren balioa. Halaber, teknikoaren arrazionalitate orokor, normatibo eta jeneralizagarriaren aurrean, ekimen arrazionalaren printzipioak kontrajartzen ditu.

Irakasleak bere jarduera praktikan eta hausnarketan oinarritu behar badu, bere rola aldatu egin behar du eta bere jarduera bideratzeko ardatz berriak proposatzen ditu:

- Irakastea errealitate konplexu eta ez egonkor batean jardutea dela eta horretaz kontziente izan behar dela
- Bakarkako eta irakasleen arteko hausnarketa

izan behar dela

- Errealitatea aztertzeke tresnak etengabe erabili beharraz jabetu behar dela
- Prozesuan zehar hartutako erabakiak kontrastatzeko aukera eduki behar dela

Horregatik *formazio* proposamenaren ordez *formazio proiektuek* hitz egiten du. Formazio *proiektuekin*, hain zuzen ere, programaren kutsu normatiboa, deskontestualizatua eta itxia gainditzen delako. Formazio proiektuen xedea zera da, alegia, ikasteko aukerak ahalbidetzen duten eremuak sortzea, beti ere, eremu bati zuzendutako ekintza estrategiakoak. Eremu horien lotura eta elkarreagina hiru aldagaien azterketa eta dinamikaren ezagutzatik sortzen dira:

- Irakaslearen xedek eta ekimenak
- Ikasleen xedek eta abiapuntu dituen eskema afektibo eta kognitiboak
- Elkartrukeak sortzen dituen ikasteko aukerak

Marko/testuinguru honetan oso garrantzitsua da, alde batetik, ikaste prozesuarekiko jarrera baikorrak garatzen dituzten baldintzak eragitea/sortzea, eta, bestaldekik, ebaluazioa ikaste prozesuan integratzea eta prozesuaren erregulazio tresna gisa erabiltzea. Zertarako? Gertatzen ari dena berreskuratzeko edo berriz osatzeko; gertatzen ari dena doitu eta zuzentzeko; gerta daitekeena aurreikusteko.

Berak proposatutako markoaren justifikazioez gain, hausnarketan oinarritutako proiektuak diseinatzeke metodologia eskaintzen du autoreak.

Mariam Bilbatua
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien Fakultateko Irakaslea.

Artikulu aipagarriak



INTXAUSTI, M. J. “¿Podemos reflexionar sobre las relaciones familia-escuela?”, Aula de Infantil 10, Noviembre-Diciembre 2002, p.40-43

M^a Jose Intxaustik artikulu honetan familia eta eskolaren artean dauden erlazioei buruz hitz egiten digu. Izan ere, gaur egun gurasoak jabetzen hasiak baitira erlazio horiek haurren heziketan daukaten eraginaz, eta, ondorioz, beraien partehartzea geroz eta handiagoa da eskolako ekintzetan. Baina zer da partehartzea? Nola ulertu behar ditugu hezitzaileok zein gurasoek esku-hartze edo elkarlan hitzak?

Erlazio hauen inguruan hausnartzeko artikulu interesgarria.

MONY,M.,RUBIO, N. “Nacimiento/emergencia de la paternidad”,Infancia en Europa 02.3 Septiembre 2002, p.14-16

Artikulu honek Frantzian gurasotasun gaiak duen garrantzia aztertzen du, gaur egun gai sozial eta politiko garrantzitsua baita. Horrez gain, artikuluak aurkezten eta azaltzen dizkigu hiru mugimendu guraso rolen garapenean eragina izan dutenak. Mugimendu hauek *Guraso eskolen sarea*, *Créches parentales* eta *Guraso eta haurren harrera guneak* dira, hain zuzen ere.

Aukera ezin hobea beste herrialde bateko gurasoen rolen garapena eta eskoletan izan duten partehartzea ezagutzeko.

VINYAMATA,E. “Educar para el conflicto”, Aula de Innovación Educativa 115, p.43-44.

Eduard Vinyamata-ren esanetan, ezinezkoa da bakea lortzea gaur egun eskoletan lantzen diren bakearen aldeko programa edo proiektuekin. Bakea lortzeko, berak zera proposatzen digu: gatazkan bizi garenez gatazkarako hezi behar dugula. Hori izango litzateke bakearen bidean abiatzeko eman beharreko lehenengo urratsa. Eta adierazten digu horretarako lehenengo eta behin gatazka horren jatorria eta mamia aztertu eta ezagutu behar dugula.

Ikastetxeetan bakearen alde egiten diren proiektuak lantzeko beste ikuspuntu bat aurkezten digu.

HERNÁNDEZ, F. SANCHO, J.M. "Desafío, transgresión y riesgo", Cuadernos de Pedagogía 319, diciembre 2002, p.12-15

Gizartea aldatzen doan heinean, hezkuntzak ere aldatuz joan behar du. Eta aldaketa hauek, artikuluan azaltzen zaizkigun bezala, hiru ikuspuntutatik egin daitezke. Baina benetako aldaketa izan dadin, ezin dira hezitzaileak alde batera utzi, gu baikara neurri handi batean aldaketa aurrera eramaten dugunok. Horrez gain, aldaketa hauei, artikuluko izenburuak ongi dioen bezala, arrisku eta erronka desberdinetatik egin behar zaie aurre, beti ere erantzun eta baliabide irudimentsuak erabiliz.

Hezkuntza aldaketen inguruan sakontzeko artikulua interesgarria.

PONCE, M." La sociometría: una técnica para la agrupación del alumnado", Aula de Innovación educativa 116, p.43-45

Ikasleak gelan banatzeko modu edo aukera asko daude, eta aukera horien artean sociometria teknika aurkitzen da. Teknika honek gelako egitura edo barne erlazioak ezagutzen laguntzen digu. Eta erlazio horietan oinarrituz hainbat taldekatze sor ditzakegu beraien arteko erlazioak suspertu eta, aldi berean, beraien ikasketa prozesua hobetzeko.

Artikulu honetan Lehen

Hezkuntzako lehen mailako gela bat banatzeko orduan sociometria testean oinarrituta jarraitu zituzten pauso guztiak azaltzen zaizkigu. Irakurtzeko esperientzia polita.

"Pedro Aranburu-ri elkarrizketa", hik hasi 72. 2002ko azaroa, 18-23 orr.

Hik hasi aldizkarian Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakari berriari egin zioten elkarrizketa irakurtzeko aukera daukagu. Bertan Pedro Aranburuk konfederazioaren antolaketa eta erronka nagusiei buruz hitz egiteaz gain, ikastolek gaur egun bizi duten egoera azaltzen digu.

Elkarrizketa interesgarria.

BEHINOLA.: "Elkarrizketa: KALANDRAKA", Behinola 6, 2002ko maiatza, 9-13or.

Argitaletxe izan aurretik, Kalandraka haurrentzako antzerki taldea izan zen, Calvino, Andersen, Ende eta abarren testuak taularitzen zituena. Baina, egun batean, jabetu ziren hutsune handia zegoela galizieraz, lehen irakurleentzat eginiko liburuetan batik bat, eta, horregatik hasi omen ziren argitaratzen albumak. Geroztik, makina bat liburu argitaratu dute, kalitate estetiko ahalik eta handienarekin

argitaratu ere, nola galizieraz hala euskaraz, katalanez... kulturartekotasuna sustatzeko bidean. Esaterako, Maurice Sendak-en **Piztiak bizi diren lekuan**, Arnold Lobel-en **Sagu kontuak**, edota Xosé Ballesteros-en **Untzitxo txuria**. Azken horrek ilustrazioaren sari nazionala jaso zuen 1999an, Oscar Villán-en ilustrazioei esker. **Máquinas** izeneko liburuak ere brontzezko domina lortu zuen 2001ean *Best Designed Books In All Over The World* nazioarteko lehiaketan. Hori dela-eta, Behinola Haur eta Gazte Literatura aldizkariak elkarrizketa interesgarria egin die, beraien iritzia jaso ahal izateko eta, bide batez, haur txikiengandako albumetan dauden arazoengatik eta hutsuneen berri jasotzeko.

ETXANIZ ERLE, X.: "Irudi liburuen berpiztea gure artean", Behinola 6, 2002ko maiatza, 25-30 orr.

Xabier Etxaniz idazle adituak diosku, besteak beste, aldaketa nabarmenak eman direla euskarazko haur literaturan, batez ere ilustrazioei dagokienez, eta zer esanik ez haur txikiengandako liburu ilustratuetan. Izan ere, haur txikiengandako liburu ilustratuetan, testuak baino garrantzi handiagoa baitu ilustrazioak. Are gehiago komunikatzen edo transmititzen den elementurik garrantzitsuen irudia baldin bada. Testuinguru honetan, Xabierrek diosku

ikusmenezko gizarte batean kokatu behar ditugula haurrentzako albumak; eta gaineratzen digu —Teresa Duran ikerlari ezagunaren haritik— hainbat helburu eduki ditzaketela: helburu dokumentalista (errealitatea islatzeko), subjektiboa (errealitatea interpretatzeko), sentimental (irakurlea hunkitzeko), jolasgarria (karikaturak-eta agertzeko), osagarria (testuaren ondoren azaltzeko, besterik gabe) eta estetikoa (irudiaren interpretazioaren bidez atsegina sorrarazteko).

PLATERO, Revista de Literatura Infantil-Juvenil, Animación a la lectura y Bibliotecas escolares, 127, febrero de 2002.

Martxoaren 8a emakumearen eguna dela aprobetxatuz, *Platero* aldizkariak monografiko bat eskaintzen dio hezkidetzari. Hori dela-eta, hainbat artikulu interesgarri aurki daiteke bertan. Esaterako: Consuelo Vega-ren *Creación y representación de las mujeres en el arte occidental: los cuentos tradicionales*; Patricia Bastida-ren *Santas modernas y doncellas heroicas: los cuentos de Ana Rossetti*; Sara Suárez Solis-en *Cuento: Las cenicientas ya no son lo que eran*; Berta Piñán-en *Cuento: Amnesia*; eta Instituto Asturiano de la Mujer-en *Listado: Literatura infantil y juvenil no sexista*. Azken artikulu horretan aurki

daiteke hezkidetzari buruzko zerrrenda hautatua, luzea bezain interesgarria, eta adinka sailkatua.

ETXANIZ ERLE, X.: "PAÍS VASCO: estable y completo", *CLIJ* 153, octubre de 2002, 63-69 or.

Urtero bezala, aurten ere Xabier Etxanizek bere gainbegirada egiten dio azken urteko (2001) euskal Haur eta Gazte Literaturako ekoizpenari; euskaraz eta gazteleraz egin ere. Besteak beste, esaten digu Haur eta Gazte Literaturaren egoera finkatu egin dela, eta horrek, nolabait, adierazten omen du orain arte zeuden hainbat hutsune osatu egin direla, hala nola poesiarena, haur txikien irudi-liburuena, antzerkiarena, eta abar. Antzerki arloan, esaterako, hor dugu Xabier Diaz Esarte-ren ekarpena; haur txikien irudi-liburuetan, berriz, lau bilduma aipa daitezke: Aizkorriren "Mendi Sorgindua, Gatuzain"-ena, Desclée de Brouwer-en Irudi liburuena eta Ereinen "Urrezko Giltza"-rena. Urteko liburu esanguratsuei dagokienez, liburu andana aipatzen digu Xabier Etxanizek. Esaterako: Patxi Zubizarretaren *Paularen zazpi gauak* (Edebé, 2002), *Lehen kanpamendua eta Zelatan* (Erein, 2002), Mariasun Landaren *Elefante txori-bihotza* (Anaya-haritzta, 2001), *Krokodiloa ohe azpian* (Alberdania, 2002), eta abar.

GAMARRA, P.: "¿Hay que escribir para los niños?", *Educación y Biblioteca*, 131, septiembre-octubre de 2002, 80-83 or.

Educación y Biblioteca aldizkariak badu atal bat "Siglo XX" deritzana. Bertan XX. mendeko artikulu interesgarriak azaltzen dira —Haur eta Gazte literaturari buruzkoak beti—, zein baino zein esanguratsua goa, oraingo honetan bezala. Eta zein da oraingoan agertzen den artikulua? Bada, Pierre Gamarra idazlearena, hain zuzen ere, bere aspaldiko liburu bat dela medio: *El libro y el niño. Importancia de la lectura en la educación* (Buenos Aires: Kapelusz, 1976). Bertan, galdera batzuk egin ostean, gai batzuk lantzen ditu Gamarrak, besteak beste, ea merezi ote duen haurrentzat idaztea, edota ea haurrentzako literaturak ba ote duen bizi izateko arrazoirik. Izan ere, adierazten digu askotan "txikitat" hartu izan dela haurrentzat idaztea. Eta horren argigarri gisara, bizipen bat azaltzen digu, alegia, behin emakume batek zer adierazi zion liburuia izenpetzen ari zitzaion bitartean: "jauna, nik uste nuen jaun serioa zinela". Eta Gamarrak esaten digu, bizipen honetan oinarrituta, haurrentzat idaztea gutxietsita dagoela; areago orri gutxiko "liburuttoa" bada, helduentzako idazten diren liburu lodikoteen aldean. Eta Gamarrak zera diosku: ez al dira garrantzitsuak, bada, haurrek lehen urteetan jasotzen dituzten "ametsak" eta "irudizko munduak"? Ez al dira duinak

haurrentzako liburuak? Edota, beste hitzetan esateko, helduentzako liburuak al dira bakarrik duinak?

ABRIL VILLALBA, M.: "Oralidad y lectura. Afectos y efectos", Lazarillo 7, 2002, 70-79 or.

Hitza izan daiteke giltza, eta izan daiteke ate; izan daiteke ur, eta izan daiteke ispilu, eta izan daiteke argi. Alabaina, horretarako, hitza esan egin behar da, eta irakurri testuinguru batean, bere jainua erakutsi dezan. Hots: "Norberak egon behar du animatua, baldin eta irakurketa-animazioa nahi bada bultzatu"; edota "literaturaren irakasleak behar du miresgarritasuna aurkitu"; edota "efektiboa izateko behar du afektiboa izan"; edota "behar dira bibliotekak eduki". Zeren, bibliotekarik gabeko eskola,

igerilekurik gabeko igeriketa-eskola bezalakoa baita".

Horrelako aipuez eta iruzkinez beteta dago artikulua, handik eta hemendik jasotako pentsamenduez josita: filosofoenak, kultur animatzaileenak, idazleenak, ipuin kontalarrienak, liburu saltzaileenak, pedagogoenak eta abarrenak. Mosaikoa guztiz interesgarria gertatzen da, bitxia bezain iradokitzailea, irakurketa-animazioaren mesedetan.

DÍAZ ARMAS, J.: "Las puertas de acceso a lo maravilloso", Lazarillo 7, 2002, 16-27 or.

Bidaiatzea da ohiko ipuinen funtziorik behinena, eta, halaber, mundu guztiko Haur eta Gazte Literaturaren gairik unibertsalena. Eta zer erakusten digute? Bada, erakusten digute ez dugula oso urrutira joan

behar bidaiatzeko. Horretarako, aski da dohain arrunt batzuk edukitzea, hala nola haurra izatea, liluratze ahalmena edukitzea, eta abar. Esaterako, atetik sar gintezke, protagonista txikiaren eskutik, Michel Enderen **Jim Boton y Lucas el maquinista** kasurako; edota sar gintezke gure sinpletasuna eta inozentzia lagun, Michel Enderen **La historia interminable** bezala; edota sar gintezke lur zulo batetik eta bidaiatzen hasi, Antony Brown-en **El túnel** liburuan bezala; edota sar gintezke ispilu batetik, **Alizia a través del espejo** liburuan moduan; edota sar gintezke margodun laukitik barrura, Pamela Travers-en **Mary Poppins**-en xarmaz, edota Leo Lionni-ren **"El sueño de Matías"**-en pintzeladaz..., eta urrutira joan, oso urrutira, guregandik gertu egon gaitezen, gero eta gertuago, harik eta mundu miresgarri bat topatu arte.

Amagoia Arteaga eta Pello Añorga.

Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Esan dute



...Hemen ez duzue aurkituko telebista eta ordenagailurik. Ez dut esango nire garaiko haurrak direnik, baina herri txikitako kale giroa aurkituko duzue hemen, kalea baitzen beren bizilekua, natura eta mendia. Gaur egungo gazteen bizimodua nahikoa aspergarria iruditzen zait. Orain gutxi ikusi nuen eszena bat penagarria. Autobusa, umez beteta, irteeraren bat egitera zihoan, eta denak isilik zihoazen, bakoitza bere kaskoekin, jokoan makinatxoarekin edo pizturik zeramaten bideoari begira. Gu builaka eta kantari joaten ginen..”

JOSE MARI ITURRALDE, Riskyren bihurrikeriak liburua aurkezterakoan (Donostian), 2002ko azaroaren 12an.



...Transmisio kaskar batek nekez ekar dezake ondorio onik; baina gauza bat dago garbi: altxor tradizionala transmititurik - haurrak bere memoteknia ikaragarriari esker, ez du hori jasotzeko inolako arazorik-, gure hizkuntzaren sena transmititzen dugu, horretan ez dugu oker jokatzeko arriskurik”...

...“Material tradizionala ez da esan den edo esan zen zerbait; gaur ere esan egiten den eta esanak berritu egiten duen zerbait dinamikoa da”...

ANJEL LERTXUNDI, Galtzagorri elkarteak antolaturiko haur poesiari buruzko jardunaldien barruan (Donostian), 2002ko azaroaren 14ean.



...Fenomeno sozial eta kontsumokoa bihurtu da Harry Potter , baina horren oinarrian fenomeno literarioa dago. Oso liburu duin eta txukunak dira hauek. Harritu nau nola batzuek, libururik irakurri gabe, bigarren mailako literaturatzat hartu duten. Baina ez da horrela, hori ukalezina da. Lehenengo irakurri egin behar dira liburuak, iritzia eman baino lehenago”...

INAKI MENDIGUREN, Harry Potter eta suaren kopa liburua aurkezterakoan (Donostian), 2002ko azaroaren 15ean.



Album ilustratua osotasun bat da, batasun bat, testua eta ilustrazioaren arteko josturak nabari ezin dakizkiokeen osotasuna. Ez du ezertarako balio ilustrazio zoragarri batek, eusten dion testu on bat ez badu. Eta aldi berean, ez du ezta ere balio ilustrazio kaskar batek lagundutako testu onak. Hizkuntza plastikoak eta literarioak elkar ulertu behar dute, elkarren beharra dute, elkar osatu behar dute. Testuak informazioa ematen du, eta irudiak informazio osagarria, ez dute zertan elkar baliogabetu, batak ez dio besteari itzalik egin behar”.

BEHINOLA: “Elkarrizketa: KALANDRAKA”, Behinola 6, 2002ko maiatza, 9-13or.



El placer de la lectura no es el de huir a otro mundo, sino el de reconocer aquel en el que uno vive. Es un espejo que nos devuelve una imagen desconocida de nosotros mismos, pero al verla, sabemos que se corresponde con la realidad. Allí reside la magia de la literatura, en el poder que tiene para abrirnos un poco más los ojos y el corazón”.

RUSHDIE, S.: “Colofón y noticias”, Peonza 61, junio de 2002, pág. 76



Dadme los seis primeros años de la vida de un niño y podéis quedaros con todos los demás”

Kapling



La palabra autoridad proviene del verbo latino auctor augere, que significa hacer crecer. Ésa es la autoridad educativa. La de una persona que ayuda a que todos se sientan integrados en la institución, que hace posible que todos participen, aporten, piensen y decidan”

Miguel Ángel Santos Guerra



No me las sé todas”

Aula de Innovación educativa 116, Noviembre 2002



Una escuela no es una empresa. El fin de la empresa es conseguir beneficios, el de la escuela, conseguir ciudadanos libres. La estructura de la empresa es jerárquica; de la escuela es participativa. La empresa busca el rendimiento económico, la escuela, el crecimiento de los individuos...”

Miguel Ángel Santos
Aula de Innovación educativa
116, Noviembre 2002



Uste dut Euskal Herriko gizarteari asko ematen ari garela eta oraindik ikastolekin zorra dagoela, zerbait hartzeko daukagula, eta ez preseski dirutan”

Pedro Aramburu
Hik hasi 72
2002ko azaroa



En definitiva, hay que tener muy claro que “participar” no se limita a pertenecer a uno u otro estamento porque “toca”, ni a “dejar hacer” a los chicos y a las chicas, ni a “ estar siempre de acuerdo” con todo lo que se dice o propone. Participar en la escuela es un camino de aprendizaje que pasa por implicarse en la vida del centro –vivir el centro- mediante la palabra y la acción cooperativa, el diálogo y los proyectos compartidos.

Ramón Francolí
La participación de los alumnos en la escuela o el aprendizaje de la participación
Aula de Innovación Educativa
116, Noviembre 2002



Para querer comunicarse es necesario querer compartir, sentir la aceptación y el respeto del otro, y que a los demás les importe. Si no es así, ¿para qué comunicarse? La escuela debe proporcionar verdaderos contextos de convivencia en los niños y niñas quieran hacer cosas juntos y en los que las familias de los inmigrantes y los autóctonos tengan posibilidades de conocerse, participar, compartir”

Ignasi Vila
Aula de Infantil 10, Noviembre-
Diciembre 2002

Haurrak izateko eskubidea

Angel Bao Pérez

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ongizateko zuzendaria

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILAK BERE GAIN HARTUTAKO KONPROMISOETAKO BAT HAUXE DA: HAURREN INTERESAK DEFENDATZEA

Tamalez, herrialde pobretuenetako umeei modurik latzenez pairatu behar izaten dituzte globalizazio eta neoliberalismoaren ondorioak.

Gure mundu aberats honetan, zorionez, haurtzaroa bestela hartzen, baloratzen eta babesten da. Hala ere, gizarte aldakor honetan haurtzaroz hausnartu beharra dago, ezin baitugu uste herritar txikienen premia guztiak aseta daudenik.

Zenbait ikuspunturen ustez, haurrak heldu izateko proiektuak dira; beraz, osatu gabeak. Guk, ordea, uste dugu komenigarria dela umeak izaki osatu eta eginizat hartzea, beren behar eta ezauzgarriak dituztela.

Gure gizarte hau etengabe garratzen ari da; irizpide eta itxaropen batzuen arabera bilakatzen da, baina maiz irizpide eta itxaropenok ez dituzte kontuan hartzen haurren eskubide eta premiak.

Bazen honetaz gogoeta egin

beharra. Hortaz, erabaki genuen elkargune bat sortu behar zela, non arloko profesionalak eta erantzukizuna zuten politikariek informazio kualifikatua eta lehen haurtzaroari buruzko prestakuntza eskuratzeko aukera izango zuten. Alegia, asmoa zen txikienekin dugun harremanean eta darabilgun trataeran kalitateari buruzko informazioa izatea.

Egoerari ezin genion iskin egin. Jardunaldia egin zenean, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa artean arautu gabe zegoen. Haur Hezkuntzako zentroen aniztasunak zalantza jartzen zituen funtzionamendurako ereduak. Behar-beharrezko zen zehaztea zer zen lehenengo haurtzaroarentzako kalitatezko hezkuntza, zein baldintza bete behar zituen zentro batek, zein lan-baldintza izan behar zituzten langileek, nolako harremana izan behar zuten zentroek instituzioekin, zein, nolako eta zenbateko inplikazioa izan behar zuen eskaintza publikoak, zein ordutegi, zein hizkuntz eredu jarri behar zen... Azken batean, parametro-multz

bat zehaztu behar zen, jarduteko, adin honetara egokitutako ereduak planifikatzeko eta arloan diharduten artean ereduok zabaltzeko.

Baina, arazoa ez dago haur-eskoletan bakarrik. Susmoa dugu hiri-garapenaren ereduak bizkar eman diela umeei: errepideak, autoak, merkataritza zentroak gero eta gehiago dira. Nabarmen ikus daitezke hiriak gero eta gehiago mugatzen dituela haurrak eta gertaera horrek zuzen-zuzenean duela eragina txikienen garapenean. Autonomiaren mugak eta inguruaren pertzepzioak ondorio gogorrik dituzte hiria ezarpenetat hartzen duten pertsonentzat.

Gure iritziz, garrantzitsua zen hezitzaileei hiri-fenomenoaren bestelako ikuspuntu bat ematea, esperientzia zuzena baitute, hezkuntza-komunitatea osatzen baitute eta haurren eskubideen defendatzaileak baitira. Areago gaur egun, hiria eta haurtzaroa, biak, aldaketa handi-handiak jasaten ari dira-eta. Egungo hiri-eredua talde sendo eta baztertzailen premiak asetzeko



ko da. Jokatu egin behar da, hiri-eredu horren garapen jasangaitza gerarazteko. Guztion eginkizuna da, beraz, gero eta latzagoa den inguru honetan haurrak garatzeko dituzten beharrak asetzea.

Haurren arloan Gizarte Ongizateko Zuzendaritza egiten ari den jarduera oso zabala da. Urte honetan zehar, beste proiektu batzuetan ere jardun dugu eta beti bilatu nahi izan dugu gizarte-eragileak erabakietan parte hartzea.

Hori dela-eta, Haurtzaroaren Batzorde Iraunkorra ari gara sortzen. Gure asmoa da ahalik eta partaidetza zabalena izatea; beraz, instituzioen partaidetza ez ezik, haurtzaroarekin erlazionatuta dagoen gizarte zibilarena ere nahi dugu.

Horrez gain, Haurtzaroaren Partaidetzarako Foroa abian ari gara jartzen. Bertan, haurrek hartuko dute parte, esaterako, Adingabekoen Babes eta Arretari buruzko Legeaz beren erabakiak azaltzeko.

Bestalde, Nazioarteko Adopzioarako Erakunde Laguntzaileak arautzeko Dekretua landu dugu, dekretu horren bitartez, adopzioarako erakunde batzuek orain arte egindako gehiegikeriak ezabatzeke.

Adingabekoen Babes eta Arretari buruzko Legea lantzea da abiarazi dugun jarduera nagusietako bat. Orain arte, aurreko agintaldietan geratu egin da lege hori, baina agintaldi honetan onetsi egingo da eta orain adituen eta pertsona interesatuen ekarpenaz aberasten ari da.

Lege horren barruan, Adingabekoaren Defentsaria azalduko da.

Defentsari horren bitartez, gaur arte haurren eskubideen arloan oso era sakabanatuan egin diren esku hartzea eta defentsa direla-eta sortutako eskari eta egoera ugariri erantzun ahal izango diegu.

Famili Bitartekaritzaren Legea eta famili bitartekaritzarako zentroak ere beste zutabe bat dira zailtasunak dituzten familietako umei laguntza emateko. Ildo horretan, beste esperientzia mota batean ari gara lanean, hain zuzen, diruz laguntzen ari gara haurren arretarako proiektu pilotuak, haurren arreta integralerako proiektuak eta inguru behartsuenetan kaleko hezitzaileekin egindakoak.

Bideratzen ari garen ekimen horiek guztiek jomuga argia izan behar dute, hauxe, alegia: gure herritarren adina eta beren familien maila ekonomikoa ez izatea baztertzeko arrazoia.

Baztertze ekonomiko horri aurre egiteko, haur-eskolan dauden haurrak dituzten familiei laguntza emateko agindu bat jarri dugu martxan. Laguntza horiek errenta txikia dutenei eta hainbat talderi daude zuzenduta, besteak beste, familia ugarietara, ezgaituei eta guraso bakarreko familiei.

Laguntza horien bitartez lortuko dugu diru-sarrera txikiagoak dituzten familientzat haur-eskolak doan edo erdi doan izatea. Era berean, bermatuko dugu haur horiek hezkuntza jasotzea eta maila eko-

nomiko altuagoa duten beste familietako umeen moduan eskolaratzea. Beraz, laguntza horiekin hauxe bilatu nahi dugu: gizarte-bazterkeriarik eza.

Hala ere, ez da nahikoa. Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Sailak hain zuzen, Haur-Hezkuntzako lehenengo zikloa arautzen duen dekretua atera behar du. Kalitatezko eskaintza publikoa sortu behar da eta mende honetarako jauzia egin behar da, hots, betiko haurtzaindegiak desagertu behar dira. Haur-eskolen garaia da eta, hortaz, biziki egin behar diegu aurre umeak zaintzeko gauzatzen hartzen duten saiakera zaharrei. Ez lonja, pisu, aingeru guardiako, garaje, tras-teleku eta ordukako haurtzaindegi gehiagorik.

Jardunaldira joan ziren guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Espere dugu jardunaldia interesgarria izatea eta haurrekin lanean jarraitzeko motibagarria izatea. Azkenik, berriro azpimarratu nahi dugu asko garela uste dugunok hezkuntza eskubide bat dela, jaiotzen garenetik.



Zer da Hau

Alfredo Hoyuelos Planillo

Maisu eta Doktore Europarra Filosofia eta Hezkuntza Zientzian

HAUR ESKOLAK BADITU EZAUGARRI BATZUK BESTE ERAKUNDE BAZUETATIK (HAURTZAINDEGI, LUDOHAURTZAINDEGI, LUDOTEKA, IKAS-TETXE, ETAB.ETATIK) BEREIZTEN DITUENA. HAUR ESKOLAK HEZKUNTZA-XEDEA DU GARBI. BERE PROIEKTUAK ETA HELBURUEK HEZKUNTZA DUTE BETI HELBURU, EZ ASISTENTZIA.



Hezkuntzaz ari naiz eta ez instrukzioaz. “*Educare*” hitzak latinez jaiotzatik haurren gaitasun edo ahalmenak *kanpora gidatzea* esan nahi du. Beste alde garrantzitsu batzuk —higiene eta osasunari buruzkoak, ekonomikoak, administratiiboak...— hezkuntza-helburu horien zerbitzura daude. Eginkizun txalogarri hori betetzeko, Haur Eskolak baditu berezko ezaugarri batzuk, nire ustez, honelako erakundeen bereizgarri direnak:

Famili giroa

Haur Eskola hezkuntza-elkarte txiki bat da (famili giro horretarako, ez dut uste 80 haur baino gehiagok egon behar dutenik matrikulatuta), eta aukera ematen du elkarrizketarako, parte-hartzeko, trukatzeko, elkar ezagutzeko... eta, batez ere, anonimitasuna baztertze.

Profesionaltasuna

Haurrekin bizi diren pertsonak pedagogi ikuspegitik behar bezala titulaturako profesionalak dira. Horri dagokionez, legea argia da, nahiz eta ez den aski: Haur Hezkuntzako edo Eskolaurreko maisu-maistra espezialistak, Haur Hezkuntzako goi-teknikariak edo Haurtzaindegietako teknikari espezialistak behar dira.

Prestakuntza iraunkorra

Eskolako lan-taldea osatzen duten profesionalak badituzte nahitaezko unek (hitzarmenean ezarrita), haurrekin zuzenean lan egin gabe, hezkuntza-proposamenak prestatzeko, beren burua prestatzeko, gaurkotuta egoteko, bilerak egiteko, familiarekin elkartzeko, banako txostenak egiteko, elkarrizketa-tzeko, etab. Denbora honek asteko lanaldiaren hamarrena izan beharko luke, gutxienez.

Ikerketa iraunkorra

Haur Eskolan bertako profesionalak etengabe ikasi nahi dute eta behar adina giza baliabide eta material daukate haur gaitasunei buruz edo haurrek ikasteko duten moduaz behatzeko, hausnartzeko

Haur Eskola



Arizmendi Ikastola. Almen gunea.



eta ikertzeko, eta horrela haurrei bere garapen sozial, afektibo, kognitibo, sensorial, estetiko, motor, etab.etan lagundu ahal izateko.

Sukaldea, heziketa-leku.

Haur Eskolak badu —haurren adina kontuan izanda— bere sukaldea, non sukaldari batek (eskolako lan-taldekoak) prestatzen baititu jaki guztiak, kalitatea zainduz.

Garbiketa

Era berean, beste langile batzuek (hauek ere haur-eskolako lan-taldekoak eta behar bezain gaituak) garbiketa egin eta sukaldeko la-

netan laguntzen dute, hezitzaileekin batera hezkuntza-lana bera ere bultzatzeko.

Behar hainbat giza baliabide eta material.

Haur Eskolak, behar bezala gaitutako langileak edukitzeaz gain (hezitzaileak, sukaldaria, laguntzaileak, aholkulariak, orientatzaileak...), baditu behar hainbat baliabide eta pertsona ere (praktikarako jendea sartu gabe eta baja edo ausentzia-kasuetan ordezko egokiak daudela kontuan izanda) helduaren eta haurraren artean harreman egokia eman dadin eta haur guztiak eta bakoitza duintasunez eta banaka zain-

du ahal izateko (hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne). Europako Batzordearen Haurren Arretarako Sarearen arabera, ez da komeni 12 hilabete baino gutxiagoko 4 haur baino gehiago izatea heldu bakoitzeko, ezta 12 hilabetetik 23ra arteko 6 baino gehiago edo 24 hilabetetik 35era arteko 8 baino gehiago.

Duintasun profesionala.

Haur Eskolan lan egiten dutenak ongi ordainduta daude, eta beren lan-eskubideak behar bezala onartuta dituzte; horrela hartzen zaie aintzat haurrekin jaiotzatik egiten duten hezkuntza-lan garrantzitsua. Onartezina da langile batzuek —ia guztiak emaku-

meak— haurtzaindegietan lan egin eta hilean 600 euro baino gutxiagoko soldata kobratzea. Horrek emakumeen lana eta lanbide hau gutxiestea esan nahi du, eta haurrenganako gizarte-begirunerik ez izatea.

Proposamenak ez hierarkizatzea

Haur Eskolan uraz, buztinaz, pinturaz, ipuinez egindako jarduerak bezain garrantzitsuak dira elikadurari, bainatzeari, loari... buruz egunero egiten direnak. Ezer ez da funtzional edo ohikeriazkoa. Une bakoitzak du bere horretan hezkuntza-berotasuna, haur bakoitzaren autonomia eta erritmo berezia bultzatzen dituena. Eta une horiek guztiak profesionalek zaintzen dituzte lan-kategoria berberarekin.

Espazio egokiak

Haur Eskolak arkitektura berezia behar du (legearen arabera, sarbide independentea izan behar du kanpotik —baztertuta daude, beraz, pisu guztiak—), nahikoa leku ere bai (beharrezko metrokopuruaz ere argia da legea) eta gainera kalitatezkoak (argitsuak, aireztatuak, seguruak...) bertan zenbait jarduera kokatzeko (ikasgelak, lantegiak, musika, etab.); gune egokiak, bereziak eta aireztatuak behar dira atsedeen hartzeko, jatorduetarako, haurrak bainatzeko, profesionalak beren artean eta familiakoekin elkartzeko. Jolastoki egokiak ere behar dira (estalita eta estali gabe), haurrek airea, eguzkia, etab. har ditzaten. Indarrean dagoen legeriaren arabera, jolastoki horiek Haur Eskolak bakarrik

erabili behar ditu eta ezin dira izan, inola ere, 75 metro koadro baino gutxiagokoak.

Gardentasuna

Gurasoek —hau da Haur Eskolaren beste ezaugarri berezi bat— sarbidea zabalik eta antolatuta dute egunero Eskolako toki guztietara, eta hezkuntza-elkarte txiki horretan bizi direnak ezagut ditzakete, iritziak eta esperientziak trukatzeko. Ez fidatu inola ere haurra —fardel bat balitz bezala— atean jaso eta entregatzen duten erakunde horiekin.

Partaidetza demokratikoa.

Haur Eskolak hezkuntza-zentroaren kudeaketan bertan familien eta herritarren parte-hartzea bultzatzen eta bideratzen du, desiragarria den ordezkatzeko demokratikoaren bidez.

Gizarte eta kultur proiektua

Haur Eskolak inguruko Komunitate osoarentzako gizarte eta kultur baliabide bat izan nahi du. Herriarekin, auzoarekin edo herriarekin ditu harremanak, garapen pertsonala eta belaunaldien arteko trukea bultzatzen duten hezkuntza-ekintzak eskainiz.

Dokumentazioa.

Haur Eskola (paretak, leihoak...) euskarri dokumental bat da (irudien eta idazkien bidez), eta haurrek zertzen dituzten hainbat esperientzia interesgarri kontatzen dira, gizakia mundura etortzen denetik berekin duen adimengaitasuna argitara emateko.

Eskubide-bateragarritasuna.

Haur Eskolak badaki, argi eta ondo antolatuta (ordutegi eta egutegi malguen bidez), haurren eskubideak (horien artean hezkuntza-eskubidea, baina baita familiarekin egotekoa, atsedeen hartzekoa, etab.) gurasoen eskubideekin (besteak beste, lanerako eskubidearekin) eta Haur Eskolako lan-



Arizmendi ikastola. Almen gunea.



Arizmendi Ikastola. Almen gunea.

gileen eskubideekin elkartzen eta bateragarri egiten.

Horiek dira Haur Eskolari dagozkion ezaugarrietako batzuk. Katalunian 15.000 biztanleren artean egindako ikerketan¹ haurren garapen psikomotorean alde nabariak aurkitu zituzten, haurtzaindegitik, Haur Eskolatik edota geroago etxetik zuzenean ikastetxera joandako haurren arabera. Emaitzak garrantzitsuak dira: Haurtzaindegian ibilitakoak familiaritatik zuzenean joandakoak

baino okerrago zeuden. Baina Haur Eskolan ibilitakoak familiaritatik bakarrik zetozenak baino hobeto zeuden, eta haurtzaindegitik zetozenak baino askoz hobeto.

Horrek hausnartzera eraman behar gaitu haurrei jaiotzen direnetik eman beharreko eskolatzeez. Gurasoek esparru egokiak bilatu behar dituzte (Haur Eskolak eta ez haurtzaindegiak) seme-alaben heziketarako. Eta herri-administrazioei kalitatezko behar hainbat postu eskaintzeko (eta, ahal bada,

doakoak!) eskatu behar diete, haurrek hezkuntza-zentroak izan ditzaten (eta ez asistentziazkoak). Hala-ber, herri-agintari eskudunek —legeriak eskatzen dien bezala— arduratu egin behar dute haurrak erregulartasunez hartzen dituzten zentro guzti-guztiek legeak eskatutako gutxieneko baldintzak bete ditzaten (espazio egokiak, ratioak, langileen titulazioak...), edo berehala behartu horiek betetzera edota itxi, gaitasun ezagatik. Haurren duintasuna daukagu jokoan eta, ziur asko, geurea ere bai.

¹ Marta Matak aipatu zuen 2001eko urriaren 6an Donostian emandako hitzaldian.

GRANADAKO HAUR HEZKUN

Kalitatezko Hezk

M^a Dolores Ruiz Domenech

PMEIGko zuzendaria



GRANADAKO HAUR HEZKUNTZAKO UDAL PATRONATUA HERRI-ERAKUNDE BAT DA, HOGEI URTE BAINO GEHIAGOKO BIDEA EGINA DUENA. BERE ESKARMENTUAGATIK, SERIOTASUNAGATIK ETA PLANTEAMENDU, PROPOSAMEN ETA LANAREN KALITATEAGATIK ERREFERENTZI PUNTU GARRANTZITSUA DA HAUR-HEZKUNTZARI DAGOKIONEZ.

Erakunde honetan zero eta sei urte arteko haurren gaitasunak berrantolatu eta berrantolatu da, beren bizitza-eremuetan, hazkuntza eta hezkuntzan, harremanetan, desira eta interesetan; halaber, egungo gizartearen gertatzen diren aldaketan ondorioz sortutako erronka berriak planteatu eta horietaz hausnarketa ere egiten da; izan ere, premia handia dago herri-erakundeek familiei eta haurrei kalitatezko kultur eta aisialdiko jarduerak eskaintzeko.

Hasieratik hartu zuen patronatuak bere haur-eskoletan izango zuen jendeari buruzko erabakia: 0-6 urte arteko etapa osoa, alegia; uste zuen eredu horrekin ematen zela erantzunik onena adin horretako neska-mutikoen ezaugarri eta premiei eta hiriko hezkuntza-egoerari. LOGSE indarrean jarri ondoren, non hiru motako ikastetxeak aipatzen baitira 0-6 urte artekoentzat (0-3, 3-6, 0-6 urte), etapa osoa (0-6) hartuko zuten ikastetxeak gehi-

tzea espero zen. Errealitatea oso bestelakoa izan da, ordea, ikastetxe hauek desagertuz baitoaz pixkanaka eta ia ez dago herri-administrazioerik honelako ikastetxerik mantentzen duenik.

Urte hauetan PMEIGk bi bide hauek erantzun die haurren hezkuntzarako zerbitzuen premiei: a) Lau haur-eskola, 0-6 urte artekoentzat, udal-titulartasunekoak. b) Bederatzi haur-eskola, 0-6 urte artekoentzat, titulartasun

TZAKO UDAL PATRONATUA: Kuntza eredu bat

pribatukoak, Patronatuaren babes ekonomiko eta teknikoaz.

0-6 eskola-eredua da adin hauetara ongien egokitzen dena; leku honetan haurrek espazio egokia eta adeitsua aurkitzen dute, beren adinerako pentsatua. Lekuotan garapena eta hazkundera era orekatuan eta harmonikoan egiten dira. Lekuotan era askotako bizipen eta esperientziak partekatzen dira: lehenago bizi izandako garaiak gogoratuz, norberaren hazkunde-prozesuaz ohartuz, eta uneren batean, eskolako nagusienak direla

sentitzeraino iritsiz. Laguntza, errespetua, lankidetz... bizitzeko lekuak dira.

0-6 eskola-eredua seme-alaben hazkuntza-prozesuetan familiekin lan egiten duelako ere aukeratzen da, horrela familiek beren zirkulu itxia baino harreman-esparru zabalagoa aurkitzen baitute eskolan; parte-hartzea eta erlazio aktiboa bultzatzen dira, eta denbora eskaintzen da beste familia batzuekin eta profesionalekin partekatzeko, eta horrela hazkuntza eta ikaskuntza ezagutzen laguntzen da, ez ba-

karrik norberaren haurtxoak bizi duen memento puntualaren ikuspegitik, baizik eta ikuspegi zabalagoarekin, bizi-egoera berrien euskarri gisa.

0-6 eskola-eredua, beren jarduerak profesionala bertan zertzen dutenek etapa osorako hezkuntza proiektuak gauzatzeko aukera dutelako ere



Arizmendi Ikastola. Almen gunea.

hautatzen da. Egin beharreko lanaren ikuspegi luze honengatik, lanproposamen malguak eta neska-mutilen errealitate eta ezaugarrietara egokituak egin daitezke, jarraipen luzeagoarekin batera. Talde-lanak eta antolaketa-egiturak (non profesionalak adin-maila guztietatik igarotzen baitira txandaka) ikuspegi orokorra ematen dute, eta aldi berean maila guztien arteko hezkuntza-koherentzia.

Hezkuntza-eredu honetan inplikatzaren parte-hartzea funtsezkoa da. Familiak, PMEIGko langileak, hurrek, bakoitzak eta guztiek, eskolako bizitzan eta erabakiak hartzeko prozesuan parte hartuz, lankidetzaren errespetua eta baterako hausnarketa bultzatzen dira, hezkuntza-eredu honen ardatz direnak, alegia.

Lana antolatzerakoan eskolek kontuan izango dute segurtasun eta konfiantzazko giroak sortzea, harremana, komunika-

zioa eta elkarrekintza bultzatzea. Esperimentaziorako, ekintza eta komunikaziorako giroak bilatuko dira, eskolako giroan egiten baita bizi, ikasi, hazi... hezkuntza-elkarte gisa. Hezkuntza-lekutzat hartu behar dira haurrak bizi eta hazten direneko leku guztiak, eskola barruan eta kanpoan. Lan-talde osoaren eginkizuna da eskolako espazioen (jolastokien, ikasgelen, zona komunen, sukaldearen...) plan-gintza.

Eguneroko bizitza da hezkuntza-lana antolatzen duen ardatza, eta eguneroko bizitzak zera esan nahi du: hezkuntza-elkarte osatzen dutenek eskolan bizi duten guztia; edo nola biltzen den ondorengo hauen premiak eta beharrak asetzea: haurrenak (elikadura, ekintza, atsedena, jolasa, harremana...), familienak (topaketa, partaidetza, informazioa...), hezitzaileenak (topaketak, eztabaidak, bateratze-lanak...); eta horiek denbo-

ran zehar nola banatzen diren eta zer kalitate ematen zaien.

Familien parte-hartzea bultzatzen da eskolako bizitzan, banako elkarrizketen bidez, talde-bileren bidez, "Hoy" (libreta bidaiari) delako bidez, familientzako taile-rreren bidez, eta familiaren/eskolaren arteko erlazio eta komunikaziorako une askoren bidez.

Granadako Haur Hezkuntzako Udal Patronatuko haur-eskolek, eraikin aski desberdinak izan arren, antolaketa eta funtzionamendu berdina dute, behar hainbat autonomiarekin antolaketa orokorra bakoitzak bere ezaugarrietara egokitu dezan. Eskola bakoitzean hartutako haur-kopurua 100-110 ingurukoa da; urte naturalen arabera, adin-talde homogeneoetan banatuta, bakoitzak erreferentziatzeko pertsona nagusi egonkorrak izaten ditu. Eskola bakoitzean 12 profesional daude, ondorengo antolaketa-tipoa mantenduz:



Arizmendi Ikastola. Almen gunea.

Adin-taldea	Haur-kopurua	Erreferentziako pertsona helduak	Beste pertsona heldu batzuk.
0-1	5	1	Hiru geletan laguntzen duen pertsona bat. * Zentroko koordinazioaz arduratzen den pertsona bat. * Sukaldean janari guztia prestatzen duten 2 pertsona.
1-2	11	1	Hiru geletan laguntzen duen pertsona bat.
2-3	23	2	
3-4	23	1	
4-5	25	1	
5-6	25	1	

Adin-talde bakoitzean postu batzuk gordeta daude hezkuntza-premia bereziak dituzten haur-errentzat, eta ratio hori murriztu egiten da kasu bakoitzak planteatzen dituen ezaugarrien eta zailtasunen arabera, laguntzeko pertsona bat izateko aukera dagoe-larik, kasu bakoitzaren arabera.

Eskolak zabaldu eta ixteko ordutegiak familien premiak eta eskolaren antolaketa-ahalbideak uztartzen saiatzen da. Gaur egun goizeko 7,30etatik arratsaldeko 5etara egoten dira zabalik. Ordutegi zentrala 9etatik 4ak artekoa da, non talde bakoitza be-



Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa

re erreferentziazko pertsonarekin egoten baita. 7,30etatik 9etara eta 4retatik 5etara arteko orduak familia batzuek bakarrik erabiltzen dituzte, beraz, adin askotakoen arteko taldeak osatzen dira, eta zikloko laguntzaileekin egoten dira. Ordutegi zabal honetan, haurrak gehienez ere zortzi ordu bakarrik egon daitezke eskolan. Bai ordutegi zentrolean eta bai aukerakoetan, 0-6 etaparen premia guztiei (gosaria, bazkaria, atsedena, jolasa, ekintza, higiena...) erantzuten diete talde bakoitzeko edota hurbileneko hezitzaileek.

Eskoletan haurrengan pentsatzeak hezkuntza-lanaz hausnar-

keta-prozesu etengabea esan nahi du, eta planteamenduak testuinguru sozial, kultural eta ekonomiko zehatz baten —Granada hiriaren— barruan egitea; beraz, eskolak bere ingurunearekin duen harremana funtsezkoa da bertara egunero joaten diren haurren eta familien ikaskuntzan eta bizitzan.

Orain dela urte batzuk, PMEIGk kanpaina bat egin zuen: “Andando por el bosque de piernas”, non 0-6 urte arteko neska-mutiko batek egungo hiri batean bizi duen babesik eta segurtasunik eza agerrarazten baitzen. “Carta de Ciudades Educadoras” delakoa asmo onen aldarrikapen

bat zen eta kalera irtetea eskatzen zen. Eta hori Granadako haur-eskola munizipaletatik egiten da; ez da lan erraza izan, baina horrek ahalbidetu du hiriak gizatasun handiagoa izatea, hirian haurrak protagonista izango diren leku bat egotea, hirian jolas egiten duten neska-mutikoak aurkitzea, eta eurek bakarrik pasatzea, azken batean, Tonuccik dioskun bezala, hiria bizirik dagoela erakutsiz.

Urte askoan, haur-eskola izan da txikiak zaintzeko eskaintza bakarra, herritar hauei eta beren familiei gizarteak eskaintzen dizkien zerbitzu bakan horietako bat. Gaur egun, zerbitzu posible-



Arizmendi ikastola. Almen gunea.

en egituratze berri bat bizi dugu, gizartearen eskari berriei erantzun nahirik. Zein izan daitezke eskaini beharreko zerbitzu berri horiek? Zer kalitate-maila behar dute? Nola koordina daitezke lehendik dauden zerbitzuak eta haurrak zaintzeko bide berriak?

Neska-mutikoak herritartzat hartzean, eskubide osoko pertsonatzat alegia, horiek esplizituki ezagutu, zabaldu eta batez ere betetzea haurrak sozializatzen dituzten helduen (famiaren, eskolaren, erakundeen...) ezinbesteko erantzukizuna da; haurtzaroren kontzeptua sortzen da, pertsonaren bizitzako lehen etapa gisa, non tratamendu berezia behar baita ikasteko, hezteko eta bizitzea egokitu zaion kulturari egokitsu integratzeko.

Lehenengo ondorioa haurrak lehen mailan jartzea da. Lehenengo postuetan, ez "pertsona txikiak" direlako eta beraiei gusua egin behar zaielako, baizik eta haur horiek eskubide osoko pertsonatzat hartzen direlako. Ezaugarri bereziak dituzte, eta horien bizipenek eta esperientziak hurbiltasun afektiboa behar dute, kalitatea eta iraunkortasuna proposamenetan, lehentasuna maila guztietan beren nortasuna eta balioak lehenengo urteetan finkatzeko. Horretan aurrera egiteak gizarte hobean aurrera egitea ahalbidetuko digu.

Ikuspegi honetatik lan egiten da PMEIGN, eta gure hiriko haurrentzat eskolekin batera ezinbestekotzat jotzen diren zenbait ekintza edo jardura egiten da. Beste ekintza edo jardura hauek, Granadako haur txikienei eta beren familiei zuzenduak, helburu honekin sortzen eta gau-

zaten dira: "Adinez txiki baina eskubidez handi" diren herritar hauei kultura eta aisialdiko aukerak eskaintzea herri-erakundeetatik, ohiko planteamendu merkantilista, lehiakor, indibidualista, bortitz edo sexisten aurrean. Eta alternatiba horiek gauzatzeko esan nahi du haurrak kontuan hartuko dituen hiri bat lortzea, eta kalitatezko kultura eta aisialdiko eskaintzak egiten aurrera egitea.

Jose Saramagok bere azken nobelan (La Caverna) dioen bezala, neoliberalismoaren aurrerapenak ekonomi eta kultur eredu bat bultzatzen du, pentsamendu bakarrak eta kontsumismorik gupidagabeenak markatua. Bere hitzetan "badirudi araua ez pentsatzea, ez erreakzionatzea, ez kritikatzeko dela" eta PMEIGN uste dugu hautsi egin behar dela arau hori. Saramagorekin batera, uste dugu "gizakia zirkunstantziak egiten badute, zirkunstantziak gizatasunez aldatu behar direla". Eta haur-hezkuntzako profesional gisa, eraldaketa horretarako gure ekarpen-txoa hau izan daiteke: txikieneztat eta beren familientzat kultura eta aisialdira-

ko ekintzak antolatzea, eta Granadan espazio bat sortzea, denbora "merkataritza-gune handietan" pasatzeko inertiarekin apurtzeko. Badakigu berdintasunik gabeko borroka dela, Daviden eta Goliaten arteko lehia, baina ez gaitu izutzen, gauza txikietara ohituta gaude eta. Proposamena Granadan Haurrentzako Kultur Zentro bat sortzea da, eta horrek agertoki edo jokaleku berri bat zabaltzea esan nahi du, eta gure hiriak eta hiritarrek mezezi duten arretaren kalitatean aurrera egiteko dinamika sortzea.



Arizmendi Ikastola.
Almen gunea.

Europako kalitate parametroak le

Irene Balaguer



Egun on, guztioi.

Lehenik, eskerrak eman nahi dizkiot Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailari aukera hau eman didalako, baita zuei ere etortzeagatik.

Gaurko gaiaz hitz egiteko eskatu zidatenean, zalantzak izan nituen. Batetik, 10 urte baino gehiago dira kalitateari buruzko lanak eta European haurren arretaz-zerbitzuetako 40 kalitate-helburuak lantzen hasi nintzela, eta beraz urruti samar geratzen zaizkit.

Edota agian gaiari buruz gaur egun dudan ahogustu gazi-gozok eutsiko zidan atzera. Guztiok dakigu modako gaia dela, alderdi askotatik hitz egiten da kalitateaz: produktu baten kalitateaz, enpresa baten kalitateaz, zerbitzu baten kalitateaz...

Baina azkenean onartu nuen, artean ez genuen ezagutzen gaizki deitutako Hezkuntzaren Kalitate Legea. Baina lege honetaz ez dut hitz egiteko asmorik.

Ez dut legeaz hitz egingo, ez duelako merezi horretan denbora galtzerik; ez da lege duina eta bai mespretxagarria. Benetan pentsatzen dut hori betetzen edo beteaz-razten duenak haurrak gaizki tratatzea besterik ez duela egingo, eta beraz desobedientzia eta intsumisiorako deia egiten dizuet.

Kalitateaz hitz egitea publizitate- eta marketin-kontu bihurtu

da, eta produktu edo zerbitzu baten kostuak murrizteko era bihurtzen ari da... Horrela kalitateaz hitz egitea, azkenean, gutxiesteko modu bat da.

Agian merkaturako balio duen ideia da, baina nire ikuspegitik ez hezkuntzarako. Eta horregatik, atseginez onartu dut gaur gai honekin parte hartzea, kalitateari buruz gure ikuspegia zuei azaldu ahal izateko.

Nire hitzaldia bitan zatitu dut:

- Zer da guretzat kalitatea?
- Kalitateari buruzko 40 helburu.

Zer da guretzat kalitatea?

Hainbat urtez kezkatu eta lanpetuta eduki nau hezkuntzaren eta eskolaren kalitateak. Haur txikiekin lan egin duten lankide askori esker, errealitate bat, es-

te hen haurtzaroan

kola bat, eraiki da, aldi berean gizartean haurtzaindegiaz zegoen irudia ezabatu duena, eta eskola hori oso bestelakoa izan da ohiko eskolaurrearen aldean ere.

0-6 urte arteko haurrak hartu eta hezten dituen erakunde-

rentzat beste identitate bat erakitzekeo prozesuan, ahalegin handiak egin dira horren izaera asmatu eta gauzatzeko, aldi berean azpimarratuz haur guztiek zutela bertara joateko eskubidea. Azkenean, gaur egun bada lan hori guztia neurri handi ba-

tean jasotzen duen Lege bat: LOGSE. Baina konturatu gara oraindik zeregin handia dagoela txikienentzat duina izango den eskolaren kalitatea bilatzen. Agian kalitatearen lana ez dela inoiz bukatzen konturatu gara tarte honetan.



Arizmendi Ikastola. Almen gunea.

Kezka hori beste herrialde batzuetako lankideekin ere beti partekatu dugu, batzuek Freinet mugimenduaren bidez, beste batzuek harreman erregular eta egonkorra ezarriz Italiako Lankidetzeta Mugimenduarekin eta, bereziki, Italiaren iparraldeko udalekin, eta horien artean Reggio Emilia-koarekin; zuetako batzuek jakingo duzue agian bertan dagoela munduko eskolarik politena, eskola horiek sortu eta horietan lan egin duelarik haur txikiaren pedagogoko batek, nik eza-gutu ditudanetik, indar eta kalitaterik handieneko ideienak zituenak.

Azken hamabost urteotan txikiaren hezkuntzaren kalitatearekiko kezka eta interes hau Europako Batasuneko 15 herrialdeetako jendearekin partekatu dut, eta Europako Batzordearen enkarguz, beraiekin lan egin dut haurrentzako zerbitzuetan kalitatea zehazten saiatzeko. Hain zuzen ere, neure lanaren alde honenagatik nagoela hemen uste dut.

Europako Batzordean Haurren Arretarako dagoen Saretik mintegiak, biltzarrak, bilerak eta, ba-

tez ere, lan-saio oso luzeak egin ditugu Helen Penn eta Peter Moss-ekin, eta saio horietan, hirurok batez ere elkar ulertzen eta haurrentzako zerbitzu baten kalitateaz bakoitzak zer ideia zuen ulertzen saiatzen ginen.

Lan haren guztiaren ondorioz, argitalpen batzuk egin dira, bideo bat ere bai, erakutsiko dizuedana, eta gai nagusi batzuk Europako Batzordearen agiri ofizialetan geratu dira jasota.

Beraz, lan partekatu baten emaitzak aurkeztuko dizkizuet batez ere, 0-6 urte bitarteko neska-mutikoen heziketaz eta arretaz arduratzen diren zerbitzu guztientzat bereziki pentsaturiko lana.

Guretzat, kontu **subjektiboa** da kalitatea, balioetan eta sineskizunetan oinarritua. Herrialde bakoitzak, komunitate bakoitzak bere ideiak ditu edo izan ditzake kalitateaz. Kalitatea **dinamiko** ere badela pentsatzen dugu, kalitatearen kontzeptua aldatu egin dela berari buruzko ideia batzuk gauzatu doazen neurrian. Baina,

aldi berean, eskola edo zerbitzu baten inguruko errealitatea aldatu egiten bada, kalitatearen ideiak edo kontzeptua ere aldatu egingo dira.

Beraz, kalitatearen edozein definizio neurri batean iragankorra dela iruditzen zaigu. Ikuspegi konplexu eta erlatibo hau baldin badugu kalitateaz, jada ez da gai objektibo eta egonkor bat, zientziak edota aditu baten autoritateak aurkitu eta neur dezakeena. Guretzat aditua bera ere ez da neutroa.

Gure ikuspegitik, kalitatea zehazteko prozesua garrantzitsua da berez, balioak, ideiak, ezagutzak eta esperientziak ezagutzarazteko aukera ematen baitu, gehiago eta hobeto partekatu, aztertu eta uler daitezkeenak.

Kalitatea ikuspegi askotatik azter daiteke: ekonomiaren, politikaren, soziologiaren... ikuspegitik, baina guri funtsezkoa edo ezinbestekoa iruditzen zaigu hiru ikuspegiok kontuan izatea: neska-mutikoena, familia eta profesionalena. Guretzat, hiru perspektiba hauek hartu behar dira kontuan hezkuntza-zerbitzu baten, haur-eskola baten, kalitatea zehazterakoan.

Kalitateari buruzko gure dokumentuan, errealitate erlatibo eta dinamikotzat definitzeaz gain, kalitateari buruzko azterketa bi koordinatatik egingo ten



Arizmendi Ikastola. Almen gunea.

dugu: batean zentro edo eskola baten barne-kalitatetarako irizpideak aurkezten dira. Adibidez:

Sarbidea

- Haur guzti-guztiek dute eskolara joateko aukera? Txikienek ere bai?
- Nola aukeratzen da eskola?
- Eta nola aukeratzen dira haurrak?
- Etxetik hurbil dago eskola?
- Malguak dira ordutegiak? Egokitzen dira familien premietara?

Ingurunea

- Lehen adinotako haurrentzat bereziki diseinatuta dago ikastetxea? Eta helduentzat, profesionalentzat eta gurasoentzat?
- Betetzen ditu beharrezko segurtasun- eta higie-neurriak?
- Badu behar hainbat leku barruan nahiz kanpoan? Badu sukaldaririk?

Jarduerak

- Haurrek badute aukerarik beren ahalmen eta gaitasun guztiak garatzeko?
- Badute lasterka edo saltoka egiteko, margotzeko, modelatzeko, musika egiteko eta honetaz gozatzeko aukerarik?
- Eta barre egiteko, hitz egiteko, pentsatzeko, aurkikuntzak edo gauzak egiteko aukerarik?
- Jan eta lo egiteko, eta beren autonomia eraikitzeko aukerarik?
- Eta har dezakete erabakirik?

Harremanak

- Planteatzen da jarraitasunik langileen eta haurren artean?
- Egonkorra dira harremanak?
- Bada gizonezkorik langileen artean?
- Bada helduak zuzenean kontrolatu gabeko jolastokirik?
- Dibertitzen dira maisu-maistrak haurrekiko lanean?

Familien iritziak

- Badute familiek aukerarik bere seme-alabaren taldean egoteko?
- Badute familiek eskolan egiten diren ekintzez iritzia ematerik?
- Badute familiek erabakiak hartzerakoan parte hartzerik? Eta komunitateak?
- Komunitateko bizitza kontuan hartuta antolatzen al du eskolak bere jarduerak?
- Parte hartzen al du komunitateak bere ikastetxeko erabakietan?

Aniztasunaren balioespena

- Agertzen eta onartzen dira arraza-desberdintasunak ikastetxeko materialetan?
- Zein neurritaraino da sentibera banako desberdintasunekiko?
- Bada baliabide osagarriak beharrezkoak izanez gero?

Ebaluazioa

- Egiten da haurren behaketarik?
- Kontuan hartzen dira familien iritziak haurren garapenari dagokionean?
- Errespetatzen da haur bakoitzaren intimitatea?
- Eta isilpekotasuna?

Kostua

- Nola kalkulatu dira eskola baten kostuak?
- Nola ebaluatzen dira onurak haurrentzat, familientzat eta gizartearentzat?
- Nork estaltzen du kostua?
- Ordaindu behar dute familiek?

Ethosa

- Badu eskolak proiekturik?
- Mundu guztiak ezagutzen du?
- Partekatzen da?
- Nork ebaluatzen du betetzen den ala ez?
- Zoriontsuak dira haurrak eskolan?

Azken atal honekin, neurri batean, hausnarketa egin nahi da atal guztien arteko koherentziaz, eta horrek, galderekin eta eztabaidarekin batera, kalitatezko zentro bat zer izan daitekeen adieraz dezake.

Bada bigarren elementu bat, non kalitatea bermatzeko irizpideak ematen baitira aditzera. Hau da, zer egin behar den eskolek izan dezaten beren eginkizunak eskatzen dien kalitatea.

Politika

- Zer garrantzi ematen zaio lehen urteotako haurren politikari beste batzuei ematen zaienaren aldean?
- Badago horrelako politikarik?
- Argi eta garbi erakusten da?

Legeria

- Ezartzen ditu legeriak eskuduntza-maila desberdinak?
- Koherentea da?

- Era berean eragiten dio legeriak arlo publikoari eta pribatuari?

Finantzaketa

- Zergen % zenbat bideratzen da txikiaren heziketara?
- Kalkula ote daiteke zerbitzurik ez izatearen kostua?

Plangintza eta kontrola

- Zer adierazle erabiltzen da eskolen premia eta eskaria ezagutzeko?
- Bada bete beharreko egutegirik?
- Zer adierazle erabiltzen da eskola bateko gogobetetasun-maila ezagutzeko?

Aholkularitza eta laguntza

- Bada laguntza-egiturarik?
- Zein gobernu-mailatan?

Langileen kontratazioa

- Gutxienez, zer oinarritzko prestakuntza eskatzen zaie hezitzaileei?
- Zer itun sindikal dago langileentzat?
- Nola aukeratzen dira langileak?
- Bada lan-absentismorik?
- Lan-ordutegiaren % zenbat denbora egoten dira hezitzaileak haurrekin?

Prestakuntza

- Ikastetxeko langile guztiek behar dute prestakuntza?
- Hartzen da neurririk gizon nahiz emakumeek prestakuntza honetan parte har dezaten?
- Zer iraupen du hasierako prestakuntzak?
- Zer eduki du prestakuntza horrek?

- Bada etengabeko prestakuntzarik?
- Dohainik da?
- Lan-orduen barruan ematen da?

Baliabide material edo

fisikoak

- Bada espazioei buruzko araudirik?
- Eta ekipamenduari buruzkorik?
- Bada aurrekonturik eraikuntza, instalazio eta mantentze-lanetarako?
- Eman dezakete familiek eta langileek iritzirik espazioei eta instalazioei buruz?
- Betetzen ditu ikastetxeko ekipamenduak berorren kalitate-irizpideak?

Ikerketa eta garapena

- Bada ikerketarik arlo honetan?
- Nork finantzatzen du?
- Nork erabakitzen ditu gaiak, parametroak, metodologia?
- Nork egiten du?
- Nola ezagutarazten eta erabiltzen dira emaitzak?

Koordinazioa

- Nola erlazionatzen dira estatuko, nazioko eta tokian tokiko politikak?
- Sortzen da horien artean kontraesanik?
- Zer lotura dute berdintasunerako politikekin?
- Eta familiari buruzko politikarekin?
- Badu inolako loturarik ingurumenarekiko politikarekin?
- Eta turismoari buruzkoarekin?

Galdera-zerrenda luze honen ondoren, ez dakit behar hainbat garbi geratuko zen zer lortu nahi genuen kalitateari buruzko lehen dokumentu honekin.

- Eztabaida ireki nahi genuen, gaiaren garrantzia eta konplexutasuna kontuan izango zituen eztabaida.
- Metodoarekin batera, kalitateari buruz pentsatzeko eta jokatzeko beste era bat sartu nahi genuen.
- Garbi utzi nahi genuen ezin dela eskola edo zerbitzu edo zentro baten kalitateaz hitz egin, kalitatearen berme edo garantiak ez badira kontuan izaten.
- Halaber, jabetzea nahi genuen herrialdeen artean desberdintasun handiak daudela, herrialde baten barruan ere desberdintasunak daudela, baina posible dela, baita beharrezkoa ere, irizpide komun edo partekatua izatea.

Berrogei kalitate-helburu

partekatzeko

Lasai egon, ez dizkizuet-eta 40 kalitate helburuak irakurriko.

Neurri batean pentsa daiteke kontraesan bat dagoela. Alde bate-tik, kalitatea **kontzeptu erlatiboa** da, aniztasuna aitortzea eskatzen duena, era askotako balioen eta sines-kizunen isla dena, eta bestetik helburu komunak lortzeko proposa-mena egiten da puntu honetan.

Planteatzen diren bezala, gaur egun European dauden eskola, zentro eta zerbitzuen aniztasunaren onarpen handia ahalbidetzen du. Sarearen iritziz, hau-

ren, familien eta oro har gizarte-aren interesek helburu komun batzuk zehaztea eta ezartzea eskatzen dute.

Arduraz zaindu da helburu komun horiek gizarte osoaren baliorik komunenak isla ditzaten, eta ondorioz aurrerapena balio-esteko moduko erreferentzi puntu bihur daitezten. Hamar urteko epean lortzeko asmoa zegoen (2006an beteko litzateke epea).

40 helburuak garrantzitsuak dira, baina gaur eta hemen, nire ikuspegitik behintzat, gure Herrian ongi ulertu ez direnak aipatu nahi nituzke.

Aurrekontu-konpromisoa

Guztiok dakigu Espainiako Estata delata bitarteko gutxien bideratzen dituen hezkuntzara: BPG-Barne Produktu Gordina-ren %4,6, Finlandiak %8,3 bideratzen du, Suediak %7,7, Danimarkak %7,6. Agian datu horiek izango dute nolabaiteko lotura jaiotza-tasarekin. Espainiarena dela Europako apalena?

Gehitu beharra dago haurrak eskolatzeko aurrekontu-partidak. Baliabide gehiago eskaini behar zaizkie. Badakigu 3, 4 eta 5 urteko haurrak eskolatuta daudela, eta eskolatze hori aurrerapauso

oso garrantzitsua da, baina badugu gaingaitu gabeko arazo bat, hezkuntza-sistemako "Errauskine" balitz bezala gaizki tratatua: txikieneen eskola, gutxieneko mailan irauten duen 0-3 urte arteko haurren eskola.

Legeak dioenaren arabera, eskaintza zabaldu egin behar da eskari guztia hartu arte, edota fondo publikoekin **biztanleriaren %20 atenditu behar da; hori 11. helburuak dioenaren arabera.**

Koherenteak izateko, BPGren %1 lehenengo adin hauetara bideratu beharko litzateke, 7. helburuak dioen bezala.



Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa

Ratioak

Nekagarria gertatzen da behin eta berriro gogoraraztea ratio ofizialak, LOGSEk ezartzen dituenak, Europako handienak dira. Neurri batean, oraindik eginkizun dagoen hausnarketa-aren ondorio bat da.

Haur-eskola ez da lehen mailako eskola bezalakoa baina haur txikiagoekin.

Haur-eskola desberdina da, jada 70eko hamarkadan Lilianne Lurçat-ek zioen bezala, eta Loris Malaguzzi-k sutsu gogorarazi digun bezala, Reggio Emiliako eskoletan zertutako pedagogiarekin.

Eskola desberdin honetan haurren eta hezitzailearen artean askoz harreman estuagoa behar

da beren premiei egoki erantzun ahal izateko.

Alde horretatik, 21. helburuko proposamenak argiak dira:

Heldu bat behar da 4-12 hilabete arteko 4 hurrekin.

Heldu bat behar da 1-2 urte arteko 6 hurrekin.

Heldu bat behar da 2-3 urte arteko 8 hurrekin.

Heldu bat behar da 3-4 urte arteko 15 hurrekin.

Heldu bat behar da 4-5 urte arteko 15 hurrekin.

Heldu bat behar da 5-6 urte arteko 15 hurrekin.

Besteak

Esan genezake hezkuntza-maila honetako profesionalak emaku-

meak garela, baita gure herrialdean ere. Errealitate honek gure gain dagoen tradizioa, sineskizunak eta balioak erakusten ditu, nahiz eta inoiz ez den debekatuta egon gizonezkoek arlo honetan lan egitea.

Aldatu beharreko errealitatea da hau, eta aldaketa hau bultzatzeko, honela dio **29. helburuak: haur-eskoletako langileen %20 gizonetzkoak izango dira.**

Prestakuntza

Lehen adin hauetan lanean has-teko eska litekeen prestakuntza-maila ez dago urrutiti Europako Batasun osorako eskatzea kome-ni litzatekeenetik. Agian, bideoan ikusi ahal izan dugun bezala, edukiak berrikustea falta zaigu.



Arizmendi ikastola. Almen gunea.

Alde honetatik, arreta berezia jarri beharko genioke etengabe-ko prestakuntzari. **22. helburuak dienez, asteko lan-orduen %10 prestakuntzarako izango dira.**

Parte-hartzea

Haur-eskolaren ezaugarrietako bat parte-hartzea da ziur asko. Eta hori hasieran, 70 eta 80ko hamarkadan, hezkuntza-proiektuaren oinarritzko elementu bat zen.

Denok onartzen genuen familiekin batera lan egin beharra zegoela. Eta esperientzia on hura bi Legetan gorpuztu zen: LO-DeN eta LOGSEn.

Guztiok dakigu aurrera egin behar dugula puntu honetan: eskola kudeatzeko irakasleek eta

gurasoek elkarlanean jarduteko modua ikasi behar dugu. Beraien egikera ez da agian gurea bezain formala, baina bai eraginkorragoa.

Horregatik, 17. helburua gauzatzera gonbidatu nahi zaituztet, eta honela dio:

Hezkuntza-filosofia gurasoek eta ikastetxeko langileek finkatu behar dute.

Hezkuntza

Gu guztiontzat, ziur asko, **16. helburua** oso nabarikoia izango da: **haur-eskola guztiek, 0-6 urte arteko haurrentzako zentro guztiek, publikoek nahiz pribatuek, balio eta helburu koherenteak izan behar dituzte, hezkuntza-filosofia**

argi eta zehatzarekin.

Nahiz eta herrialde honetan gehienek onartu hau hezkuntza-etapa bat dela, ezin dugu ahaztu arriskuan dagoela, inboluzio nabarian, 0-3 urtekoentzat eskolaurre asistentzialarekin eta 3-6 urtekoentzat instrukziozkoa soilik den haur-hezkuntzarekin.

Koordinada berri hauek behar-tuko gaituzte, dudarik gabe, haur-eskolako jendearen jokabidean setati jarraitzera: egunero errealitate pedagogiko eta sozial indartsu bat eraikiz, behin eta berriro nekatu gabe eskatuz hezkuntza-administrazioak bete-betean har ditzala bere eskumenak eta gobernuak beren erantzukizunak, txikienei beraien izaerarekiko —0-6 urte bitarteko haurren izaerarekiko— begirunea bermatuz.



Arizmendi Ikastola. Almen gunea.

“Hirikume” bat

Marta Román Rivas

Colectivo de Mujeres Urbanistas



HAUR BATEN AMA IZATEA HIRIAN LUXU HANDIA DA, AUSARDIA BEHAR DA, KAPRITXOA ETA BALENTRIA DA.

Hirian ama izatea korrontez kontra ibiltzea da: geldi ibiltzea guztiak bizkor dabiltzan lekuan, zamatuta oztopoen gainetik saltoka ibiltzea, hurbilenekoaren menpe, dena urruti dagoen arren. Hirian ama izateak esan nahi du diruaz, irudimenaz edo etsipenez hiriko desorekak konpontzea, sakabaturiko hiriaren pitzadurak betetzea, espazio desegoki batean moldatzeko zerbait asmatzea. Eta are zailagoa, hori dena bakarrik egitea. Hirian haurrak haztea ez da jada eginkizun kolektiboa, banakoen eginkizun bihurtu da, bikotearen arazo bat da eta amen zeregin nagusia.

Eta nagusi askok esango dute: “Dena daukate haur hauek:

jostailuz beteriko gelak, trizikloak ibiltzen ere ikasi baino lehen, bizikletak pedaletara irteteko ere gai izan baino lehen, dena daukate behar, nahi edo erabili ahal izan baino lehen”. Eta nagusi askok esango dute: “Horien adinean, nik...”. Eta nagusi asko ez dira ohartuko haurrei hirian oinarritzkoena kendu diegula isil-isilik: bizitzeko lekua eta aske mugitzeko gaitasuna.

Ohar zaitez, jada ez dago haurrik kalean. Ez dago haurrik ez bakarrik dabilenik, ez taldean jolasean, ezta izkinetan gorderik edo zuhaitzetara igota ere. Ia ez duzu haurrik kalean ikusiko eta munduaren Hegoaldeko beste hiri batzuetatik etorritakoei, oraindik haurren artean bizi direlarik, gure hiriak oso garbiak

eta txukunak iruditzen zaizkie, baina goibel eta hilak.

Eta autoz, kez eta presaz beteriko hutsune horretan, ama bat agertzen da orgatxo bati bultzaka edo umetxo bati besotik tiraka “Ea, bizkor!” esanez edota larri-larri deika: “Ez joan korrika!”, “Ez zeharkatu!”, “Geldi hor!”. Pausoa galdutako erritmoak. Hezteak esan nahiko du hiriko ibilera hori irakastea, ez bizkorregi eta ez mantsoegi ibiltzea, semaforo berdearen arabera, oinezkoen berokien artean, espaloi estuetan.

Segur aski ama askok gogoratzen dugu oraindik ikastetxerako bidea. Zazpi urte betez gero, nagusirik gabe, bakarrik edota taldetxotan joaten ginen, adin

en ama izatea

desberdinetako haurrok. Zein simplea zen ibiltzea, ikusmiran geratzea, dendari begira egotea, edo okindegiaren ondoan usnaka, erakusleihoaz bestaldeko zerbaiten irrikan, edo etxeren bateko txirrina jo eta lasterka hanka egitea. Zein askatasun-egintza xumea! Ikastetxera joatea, edota hanka egin eta “piper egitea”, edo hazten eta erantzukizunak hartzen hastea. Zein erraza orientazioa ikasten hastea: non nago, zer distantziatara ikastetxetik, zenbat pauso falta zaizkit iristeko, zein mugarrak laguntzen dit ulertzen eta maitatzen egunero egiten dudan ibilbidea. Hura bai usain, kolore eta sententzioen pertzepzioa! Haurrak bakarrik du gaitasuna orri baten karraskaz ohartzeko, edo potxingo batean plisti-plasta jarduteko edo urrutira botatako ontzi baten zarataz gozatzeko.

Galde egiozu nagusi bati zertan eta non jolas egiten zuen. Gogoratzen duzu zeure kalea? Hura zen zure jolastoki kutuna, ahal izanez gero “bukatu gabea”; zenbat eta bide-zulo, eremu eta espaloi lohitsu gehiago egon, are hobe. Kalea besteekiko topalekua zen, taldearekin borrokan, pilotan, sokasaltoan, tokean, gordeketan... ibiltzeko espazioa. Han bazegoen ihes egiterik na-



Arizmendi Ikastola. Almen gunea.

gusien presentzia eta kontrolari, eta nagusiek afaltzera joateko egiten zuten oihu, edo “Ez bota harririk, umeak!” egiten zuten errieta, edota norbaitek min hartutakoan ezinbesteko laguntza emateko agertzen ziren.

Eta orain, zer espazio utzi diegu haurrei?

Auzoan ezer ez, edo ia ezer ez. Haurrak gogaikarriak dira eta, ama zaren aldetik, zure haurrak hiriko bizi-erritmoa oztopa ez dezan zaindu behar duzu. “Galarazita pilotan egitea”, “Ez zapaldu soropila”, “Debekatuta irristailuak eta patineteak”. Ez da nire ahoberokeria. Etxarte bateko patioan haurtzaindegi bat nola itxi duten ere ikusi dut, auzokoentzat gogaikarria baitzen haurrek jolasean egiten zuten zarata.

Bide-segurtasuna irakastera udaltzainak ez dira joaten bulegoetara, lantegietara, kafetegia edo fabriketara, baizik eta ikastetxeetara. Konturatu garelako haurrak direla arriskuaren jatorria, egoki portatzen ikasi behar duten piztia hezigabeak, ezbeharren bat eragin dezaketen izaki kontrolik gabeak. Horregatik ipini dituzte arrisku-triangeluak ikastetxeen inguruan, non neskatila eta mutiko bat agertzen baitira liburu-zorroekin lasterka. Horrela, han inguruan autoz dabilzanak ohartarazita daude, agian “haurrak lotu gabe” aurkituko dituztela, abere arrisku-

tsuak, 20-30 kiloko pisua duten izaki beldurgarriak, pilota baten atzetik lasterka bidera irten daitezkeenak.

Izan ere, haurrek, nahiz eta ibiltzeko eta lasterka egiteko gaitasuna oso garatuta izan, oraindik urte batzuk beharko dituzte gauza mugikor baten lastertasuna kalkulatzeko, hots bat nondik datorren ohartzeko edo zirkulazioaren konplexutasuna ulertzeko. Eta kalean nagusiok bezala jokatzeko ez dakitenez, etengabe zaintzapean bizitzera kondenaturik daude. Eta orain ulertuko duzu gu, ama garenok, zergatik bihurtzen garen preso zain.

Horregatik, haurra kaletik daramazunean, heldu tinko eskuetik, emaiouzu jipoi bat kalea berak bakarrik zeharkatzen badu, edo egiozu deiadar espaloi-ertzera hurbiltzen denean. Ez galdetu orduko 50-60-80 kilometroko abiadan dabilzan autoez: “presa dute”; ez galdetu espaloi gainean geratzen den furgonetaz: “lanean ari da”; ez galdetu autoek zure haurren muturrera botatzen duten keaz: “aberastasuna sortzen ari dira”.

Baina ez gaitezen kexatu, hiri hauetan dena ongi pentsatuta dago eta piztientzat esparru bereziak prestatu dituzte, ongi hesitu eta itxiak, etengabe zainduak. “Beraien segurtasunagatik”. Ez ezazu dudan jarri kaiola koloretso hauetako itxitegia, Udalak eskaintzen diguna, luxu bat baita, eta ezereza baino askoz hobea. Bila ezazu lagun bat haurren ghetto txikian, asper-asper egin da ez egoteko, beraiek, laborategiko akuriek bezala, behin eta

berriro mugimendu berberak errepikatzen dituzten bitartean.

Baina gogoratu, beti dago hor geure etxe sakrosantua, haurrak hazteko lekurik egokiena. Segurtasun eta erosotasunezko espazio horretan, amok eta seme-alabek erruz eta sakon landu ahal izango dugu geure arteko harremana, eta pixoihal, zereal eta askarien iragarkietan ematen diguten irudi “uridin-arrosaren” mailara iritsiko gara. Erabili zeure irudimena, asma itzazu jokoak haurrak entretenitzeko.

Eta “ama, aspertuta nago!” behin eta berriro entzuten duzunean, gogoratu korridorearen muturrean dagoela salbazioa; telebista ikusten edo bideojokoen aurrean gelditu eta isilik egongo dira aldi batez. Hiri moderno hauetan, zer egingo diogu, bada!, haurrak “birtualki” jostatzen dira eta kalean galarazten dizkiegun ibilerak eta abenturak telebistaren bitartez bizi dituzte.

Eta gainera profesionalak etorriko zaizkigu errieta eginez: “Emakumea, zure haurra lodiegi dago, kolesterola oso altu du, ez al du ariketarik egiten? Zer ematen diozu jaten?”. Eta inor ez zaie oihuka hasiko arazoaren sustraia aipatuz: haurrak itxita daudela, ez dutela gorputz-ari-ketarik egiten, kaleak desegokiak direla bertan ibili edo espaloian saltoka jarduteko; haurrei ezinezkoa gertatzen zaiela beren altuerako lagunekin elkartzea, hiritar horiek izugarritzko bakardadean bizi direla, batere gogoko ez duten itxitegian. Eta berriro ere arazo pribatu bihurtuko da, eskolaz kanpoko beste ekin-tza bat, ordaindu beharrekoa,

haurra eraman eta ekartzea eskatzen duena: futbola, judoa, igeriketa, gimnastika, tenisa... Edozer gauza egin behar, beren energia erre dezaten eta etxera nekatuta irits daitezten.

Eta haurrak oheratu ondoren, nekaturik sofan etzaten zarenean,

iragarkietan ama irribarretsua haurtxo ilehoriak besoetan gora altxatzen ikusten dituzunean, honelako zerbait pentsa dezakezu: "Zer egin dut nik gaizki? Nola lortu dut nik honelako bizimodua? Noiz ikasiko ote dut hobeto antolatzeta?". Eta zeure bizimodu nekoso erreparatzen baduzu, ez duzu

ulertuko XXI. mendean, mundu osoan haurraren eskubideak onartuta dauden garaian, horien ongizateaz arduratzen den horrenbeste profesional dagoen garaian, estimulatu eta jolas egin dezaten horrenbeste gauza asmatuta dagoenean, zergatik den hain zaila horien ama izatea.



Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa

Hezkuntzari bu



ONDRENGOKO LERROETAN GAUR EGUN INTERNETEN HEZKUNTZARI BURUZ AURKI DAITEZKEEN ATARI BATZUEN ZERRENDA BAT AURKEZTEN DIZUEGU. HELBIDE HORIETAN HEZKUNTZAREN ETA HEZKUNTZAREKIN LOTUTA DAUDEN BERRIAK IRAKURTZEKO AUKERA DAGO.

www.aulainfantil.com

Haur hezkuntzari zuzendutako atari interesgarria. Bertan ipuinak, abestiak eta irakasleei zuzendutako artikulu eta ekintzak aurki daitezke, besteak beste.

www.educaweb.com

Interneteko atari hau bereziki hezkuntza, formazioa eta lanari zuzendua dago. Atariak eskaintzen digun bilatzaileari esker 35.000 hezkuntza baliabide baino gehiago ikus eta azter daitezke.

www.educared2000.net

Web orri honetan sarean aurki daitezkeen hezkuntza baliabideak ikus daitezke. Eta horrez gain erabiltzaileek euren artean hezkuntza baliabideak elkartrukatu eta proiektuak eseki ditzakete.



Arizmendi ikastola. Almen gunea.

buruzko atariak

www.eduguia.net

Interneteko atari hau hezkuntzari buruzko entziklopedia dela esan daiteke. Ondorengoko ataletan banatzen da: irakasleak (1-5 urte / 6-11 urte), zuzendaritza taldea, erakundeak, hezkuntza berezia, curriculumetik kanpoko ekintzak, gurasoak, aholkularitza eta errekursoak.

www.ensenet.com/main.asp

Atari honetan ondorengo informazio interesgarria aurki daiteke: legeria, bekak, ikerkuntza proiektuak, berriak...

www.teachernet.gov.uk

Britainiar atari honetan hainbat baliabide ikusi eta aztertzeko aukera dago. Baliabide horien artean argitalpenez eta beste orri batzuetako loturez gain "adituei galderak" atala azpimarra daiteke.

www.quadernsdigitals.net

Atari honetan agertzen diren artikulua eta baliabideak gehienbat teknologia berriei zuzenduta daude.

Eta euskarazko errekurtsoei dagokienez, Aurki bilatzailearen direktorioan ondorengo biak aurki daitezke:

HEZKUNTZA:

<http://www.aurki.com/Top/World/Euskara/Hezkuntza>

JAKINTZA:

<http://www.aurki.com/Top/World/Euskara/Jakintza/>



Arizmendi Ikastola. Almen gunea.



HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA